

Liburu berri bat idazten hasten naizenean bidaia batean abiatzen naizela sentitzen dut. Ilusioa eta ikara sortzen dira neurri berean, jakin-mina eta zalantza, joan nahia eta bertan goxo geratu nahia. Narratibaren kasuan gutxi-asko badakizu nora iritsi nahi duzun; nora iristen zaren, hori beste gauza bat da.

Poesia baldin bada hori ez da hain garbi egoten, nire kasuan, behintzat, zu bizitzan egiten ari zaren bidaiarekin zerikusia duelako. Planifikazioari ihes egiten dio poesiak, eta bai ibilbidean ezuste asko eman. Espero ez duzunean agertzen da maiz, eta haren bila zoazenean, aldiz, ongi ezkututzen badaki. Baina agindu ezkutu bat jaso balute bezala, denbora baten ondoren poemak agertzen hasten dira, eta zuk liburuaz daukazu ideia orokor eta gehiegi zehaztu gabe horren espazioa betetzen hasten dira. Zentzua hartzen hasten dira bata bestearen ondoan kokatu ahala, tonuan ere errespetua gordez elkarri, eta orduan ez da atzerabiderik geratzen, orduan iristen da garai bat zure bizitzan poesia idatzi gabe egon ezin duzuna. Antenak piztuta zabilta egun osoan, zirriborroak idatziz. Hitz gehiegi eskaintzen dizkiot poema bakoitzari hasiera batean, jakinik gero garbitu, inausi eta xehatu egin beharko ditudala.

Bertsolari misteriotsu baten moduan funtzionatzen du poesiak askotan: zuk gaia jartzen diozu, eta berak poemak bidaltzen dizkizu gai horren azpildurak erakutsiz. Poesia idaztea ez da hainbeste, niretzat, poemak idaztea, baizik eta sormena erakarriko duen animo egoera bat sortzea; nire arreta eskaintzea, eta tresna literarioak ahalik eta ondoen erabiltzea gogoetak, eta sentimenduak eta pertzepzioak paperera ekartzeko.

Ni eta Gu deritzan instantzia horien arteko tentsioa askotan agertu da nire aurreko liburuetan ere, oro har literatura unibertsalean ageri den bezala, batik bat Erromantizismo garaitik hona. Baina oraingoan pauso bat emateko beharra sentitu dut: kalera jaistea, alegia, jendartera, haien hitzak zuzenean entzuteko eta hitz horiei gero forma iraunkor bat emateko poema baten bidez. Niretzat poesia diziplina global bat da, beste diziplinetako erremintak ere har ditzakeena, hala nola kazetaritza, antropologia, publizitatea, gidoigintza edo mikro-kontakizunen tentsioa, zergatik ez. Hitz kopuruan dago kakoa, esaldien antolakuntzan, hitzen arteko elkartasunean, ez gehiegi esatean; baina motz ere ez du geratu behar.

Ni eta Gu deritzan instantzia horien arteko adiskidetasuna bilatu nahi izan dut liburu honetan, integrazio modu bat, Niaren nortasuna galdu gabe, bizitzan egin duen bidaiaren oroimena galdu gabe. Ni hori hasieran indartsu hasten bada ere, nik uste liburuan aurrera egin ahala Gu horrek leku eta protagonismo gehiago hartzen duela. Benetako pertsonen historiak dira asko, euren izen propioekin jasoak; eta pertsona anonimoen bizitzak beste batzuk, poetak irudikatu dituenak, baina beti ere euren testuinguruan kokatuak.

Horretarako garrantzitsua da pertsona horien adina jakitea, egoera familiarra, paisaia edo ingurunean hartzen duten lekua aztertzea. Hargatik sartu ditut argazki solte batzuk ere, ingurune geografikoari buruzko apunte moduan. Begiak zer ikusten duen, bihotzak zer sentitzen duen, hitzek zer esaten duten, horra hiru osagai poema batentzat. Pertsonaia guztiek munduan daukaten lekua garrantzitsua da, *leitmotiv* bat liburuan zehar.

Leku bat munduan, eta ez fisikoa bakarrik; emozionala ere bai, espirituala, genealogikoa, zein leku okupatzen dut nik gure bizitzen kontakizunean. Poliki-poliki hasi nintzen, eta beldur piska batez, benetako pertsona hauek nire testuetara ekartzen. Eta eurei poemak erakusten hasi orduko, argitaratzeko haien baimenak etorri ziren. Nahi zuten agertzea, liburua oraindik ere izaki sakratu bat balitz bezala, munduan eman zaigun denbora apur bat luzatzeko ahalmena leukakeena.

Dena den, fikziozko eta benetako bizitzen artean dagoen muga oso lausoa da; neure bizitzari atzera begiratzen badiot une askotan fikziozkoa izan dela iruditzen zait, kontakizun oro dagoela ziprztindua errealitate apur batez, errealitate itxurako fikzioaz, eta zinez gertatzea nahi izan genuenaz.

Eta presentzia bat baldin bada garrantzitsua liburuan, itsasoarena da. Itsasoari begiratzen dion jendeaz aritu nahi nuen, baina itsasoratu nintzen batean ulertu nuen itsasoak ere gu ikusten gaituela. Ikuspuntu aldaketa txiki bat da, baina esanguratsua dela deritzot, elkarriketa bat sortu zelako itsasoaren eta gure artean. Berak gu nola ikusten ote gaituen, lehorreko izaki gaixoak, etsiturik, haserre, maitemindurik, herabe, aberats edo pobre, ameslari edo porrotean murgilduak, edo auskalo nola.

Pako Aristi
Donostia, 2021eko apirilak 28